



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2008-05-14**

VIURTEA 1.433. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Renfe enpresarentzat lanean ari zen langile bat hil da, trenak harrapatuta

TOLOSALDEA Alegia eta Tolosa arteko trenbidean jazo zen istripua; 28 urteko gizonezko irundarra zen hildakoa

ERREAKZIOAK Lan istripua salatu eta elkarretaratzeetara deitu dute LABek eta ELAk; Osalanez ikerketa abiarazi du z

Kartzela zigorra eskatu dute zinegotzi ohi baten aurka

BELAUNTZA Sustriak plataformako akusatuak «ofizialki ez du jakinarazpenik jaso» 6



ESTI EZEBIZA

ANA USABIAGA TXIRRINDULARIA

«Mundialetara gozatzera eta ikastera joan nahi dut»

TOLOSA Tolosa CFko txirrindulariak zazpi domina lortu ditu Espainiako Txapelketan; uztailen Munduko Txapelketan izango da 7



Pasa den astean aurkeztu zuten Garagardo Azoka. A. IMAZ

Bosgarren urtez, Garagardo Azoka antolatu dute

IBARRA Herriko hainbat taldek bultzatuta, hilaren 29an hasi eta ekainaren 1ean amaituko da 6



Maiatzaren 18an
XIV Orduetako ibilaldia

Ibilbidean zehar ateratzen dituzuen argazkiak bidali HITZARA eta hilaren 23ko alean argitaratuko ditugu.

Argazki onena saritu egingo dugu!

bidali zure argazkia!



HITZA argazki lehiaketa

Argazkiak tolosaldean@tolosaldekohitza.info-ra bidali

'Udan jolasean' ekintzetarako begiraleak izateko deialdia zabaldu dute

ERREDAKZIOA

Villabonan uztailean egingo diren *Udan jolasean* deituriko ekintzetan parte hartzeko deialdiak zabaldu dituzte. Baldintzak begirale izateko euskara menperatzea eta 18 urte gutxienez izatea dira. Curriculuma aurkeztu beharko da ere.

Izena emateko hilaren 22ra arte dago aukera Euskara Zerbitzuan. Aukeraketa-froga, berriz, hilaren 23an izango da. Interesatuak 943 693501 zenbakira dei dezakete.

Gurasoentzako informazioa

Txanda ekainaren 30etik uztailearen 18ra izango da eta eskolaurreko lehen mailatik hasita 4. mailara arteko haurrentzako da. Goizez izango dira ekintzak. Helburua, irteera eta beste jardueren bidez oportunitateak erabiltzeko da.

60 euro ordaindu behar da: bigarren senidetik aurrera, berriz, 30 eta ordainagiria Udalera eraman behar da. Kontu zenbakiak hauek dira: 2101 0072 78 0000068122 (Kutxa), eta 3035 0046 73 0460900005 (Euskadiko Kutxa).

Izen-ematea udaletzeko Euskara Zerbitzuan hilaren 26a bitarte izango da, hilaren 23a ezik.

Zizurkilen udan zehar begirale bezala aritzeko deialdia luzatu du Udalak

ERREDAKZIOA

Oporretan euskaraz 2008rako begiraleak aukeratzeko deialdia luzatu du Zizurkilgo Udalak. Begiraleek ekainaren 23tik uztailearen 18ra arte burutu beharko dute lana. Deialdian hautatuen zerrenda 2009ko udan antzeko lanetan beharrei erantzuteko erabiliko da.

Parte hartzeko ezinbesteko baldintzak Zizurkil en eroldatua egotea, 18 urte izatea eta euskara ondo menperatzea dira. Azterketa teoriko-praktikoa egingo dute, baina beste hainbat gauza baloratuko dituzte. Informazio gehiago Aurrera Plazako Udal Bulegoetan edo 943-692495 telefonon.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsona bat behar dugu. 685 227058.



Arzabaltza baseritik hurbil gertatu zen ezbeharrak. Langile gazteak kontrolarekin lotutako lanen batean ari zen trenak harrapatu zuenean. NEREA URBIZU

Renfe enpresarentzat lanean ari zen langile bat hil da, trenak harrapatuta

Tolosaldea » Tolosa eta Alegia artean izan zen lan istripua atzo eguerdian gizon ezko irundarra trenbidean lanean ari zela.

ERREDAKZIOA

Renfe enpresarentzat lanean ari zen langile bat hil zen, atzo eguerdian Tolosa eta Alegia arteko trenbidean jazotako istripuaren ondorioz, Arzabaltza baseritik 200 metro ingurura. O.A.F. 28 urteko gizon ezko irundarra izan zen hildakoa; hain zuzen, lanean ari zela aldiriko tren batek harrapatu egin zuen. Ezbeharraren ondorioz, gazteak kolpe handia jaso zuen zeharka.

Istripua 12:10ean izan zen, Ertzaintzak informatu zuenez. Minutu gutxi buruan anbulantzia medikalizatuak bertaratu ziren baina ordubete beranduago, 13:10ean, langilearen heriotza konfirmatu zuten.

Lan Arriskuen Prebentzioa eta Ingeniaritzan aholkularitzako langileak zen enpresa batean. Enpresa

hau Adifek (Renferen tren zerbitzuen kudeaketaz arduratzen den elkartera) kontratatu zuen aholkularitza arloan aritzeko. Dirudie-nez, kontrolarekin lotutako lanen bat egiten ari zen une horretan hildakoa. Trenak emandako kolpe handiak langilearen trenbidetik ateratzen zuten bere heriotza ekidin ahal izan.

14:30a aldera gorpua Donostia-ko auzitegiko anatomia instituturara eraman zuten epailek agindu ondoren.

Osalanek, lanerako segurtasun eta osasunerako Eusko Jaurlaritzaren erakundeak, jakinarazi duenez, Ingenierias Madrid ize-neko enpresako langilea zen irundarra eta lan istripuaren nondik norakoak argitzeko ikerketa abiarazi dute.

Sindikatuak lan istripua salatu dute

ELA sindikatuak «lanera joatea bezala etxera bueltatzea ere eskubidea dela» aldarrikatu nahi izan du gertakariaren aurrean. Atzoko

istripuaren kasuan, «langile honen behar handienetako bat prebentzioa zen eta hori faltan zegoela argi geratu da», azaldu dute. «Egoera oso prekarioan lanean ari zen Renferen azpikontratatuak enpresa baten langilearen hilketa izan zen atzokoa eta hausnarketa bat egiteko unea dela uste dugu». Halaber, ELAK etzira deitu du elkarretaratzera 12:00etan Alegia-ko tren geltokian, lan istripu hau salatzen helburuz.

LABek, bere aldetik, ez du zehaztu noiz egingo dituzten elkarretaratzeak. Istripuaren aurrean kaleraturiko oharrean lehenik «elkartasuna» adierazi nahi izan die atzo Alegian «laneko istripuz hil zen langileen senide eta lagunei».

«Zoritxarrez», jarraitzen du, «eskualdean hildako hirugarren langilea da lan istripuaren ondorioz urtea hasi zenetik», eta «oraindik ez dugu ikusi inongo instituzio edo administrazioetatik heriotz hauen salaketarik, ez eta langileen senide eta lagunekiko elkartasun adierazpenik».

Bestetik, «gogor» salatu nahi izan dute laneko heriotza hau eta «laneko ezbeharrak kopuruen arrazoia egiturazkoa dela salatu nahi

dugu. Patronalak prekarizazioaren gordinenera eta segurtasun faltara kondenatu nahi gaitu. Argi geratu behar da patronala eta gor-mutu jokatzeko duten administrazioak direla laneko istripuaren ondorioz hildako langileen heriotzen arduradunak».

Horregatik, eskualdeko langilegoari egingo diren mobilizazioetan «parte hartzeko deia luzatzen diogu». Alde batetik «hildako langilearekiko klase elkartasuna bizirik mantentzeko», eta bestetik «patronala eta administrazioak errudun direla salatzen».

2008an bigarren hildakoa eskualdean

Eskualdean aurten lan istripuz hiltzen den bigarren langilea da. Pasa den martxoaren 28an hil zen lehenengo langilea, lantokian bertan bihotzekoak jota. Duela aste batzuk beste gizon ezko bat ere hil zen traktorean lanean ari zela bainajubilatuta zegoenez ez zuten lan istripuztatzen.

LAB sindikatuak zabalduko datuen arabera, aurten lan istripuz Euskal Herrian hil den 38. langilea izan zen atzo Tolosa eta Alegia artean hildakoa.



Pasa den martxoan hildako langilearen heriotza salatu zuen LABek. ESTI EZBIZA

Tolosaldeko Irudi Turistikoaren Diseinurako Lehiaketa abian

Gizartea » Tolosaldea Garatzenek antolatuta du; irabazlearentzat 900 euroko saria egongo da.

ERREDAKZIOA

Tolosaldea Garatzenek, «Tolosaldeko sustapen turistikoaren aldeko apustuaren baitan», Tolosaldeko Irudi Turistikoaren Diseinurako Lehiaketa Publikoa antolatuta du.

Lehiaketa mota guztietako hautagaien irekia egongo da, pertsona fisiko nahiz juridikoei, bai bakarrik baita lan taldean ere. Bigarren kasu honetan lan talde lanaren ardura duna izango den pertsona batek ordezkatuko du. Lanen aurkezpena ekainaren 9an egingo dute, eta hautatuarentzat 900 euroko saria egongo da.

Tolosaldea Garatzeneko Turismo sailak lehiaketaren inguruko zabalera oro argituko du. Sta Maria Plazan duen bulegoan edota 943 69 74 13 telefono zenbakian. Hala ere, edozein zabalera izanez gero, informazio gehiago topatu daiteke www.tolosaldea.net/garitzen web orrian, eta oinarriak ere bertan ikus daitezke.

'4 luni, 3 saptamini si 2 zile' filma bihar ikusgai, Zine Forumean

Zinema » 19:15ean eta 21:45ean izango dira saioak, Leidor aretoan; Cristian Mungiu zuzendariarena da.

ERREDAKZIOA

Biharko Zine Forum saioan, 19:15ean eta 21:45ean, *4 luni, 3 saptamini si 2 zile (4 hilabete, 3 aste, 2 egun)*, Cristian Mungiu zuzendariaren filma izango da ikusgai.

Cristian Mungiu (1968. urtean jaioa) zinemagile errumaniarrak idatzi eta zuzendutako bigarren film luzea da. Ceausescu-ren diktadura garaiko legez kanpoko abortuen gaia jorratzen du. Otilia umibertsitateko ikaslea da. Estatu-ko ikasleen egoitza batean gelakide duen Gabita-ri nahi gabeko haurdunaldia eteteko trantze zail eta arriskutsuan lagunduko dio, osasun langile batek lagunduta. Abortua klandestinoki egingo dio langile honek, trukean dirua ezetik sexua ere eskatuta, gazteek ez baitute erizainak eskatu aindira diru.

E Elkarrizketa

MARGARITA MARTIN » Meteorologoa



NAGORE IRASTORZA

«Hondamendi ekonomikoa da benetan garrantzitsua»

Gizartea » Bihar aldaketa klimatikoaren inguruan hitzaldia emango du Margarita Martin meteorologoa; 19:30ean izango da Tolosako udaletxeko batzar aretoan.

IÑIGO TERRADILLOS

Aldaketa klimatikoa: ondorioak eta jarrera arduratsua hitzaldia emango du bihar Margarita Martin (Zaragoza, 1955), meteorologoa. Kutzak antolatutako hitzaldi hau Tolosako udaletxeko batzar aretoan izango da 19:30ean. Meteorologoa biharko hitzaldiaren nondik norakoak azaldu ditu.

Zer da hitzaldian azalduko duzuna?

Lehendabizi, azken 1.000 urteetan klima nola aldatu den errepasatuko dut. Izan diren fenomeno garrantzitsuenak aipatuko ditut, eta irudiak jarriko ditut mendeetan klima nola aldatu den ikusteko. Ondoren, eta gertuagoko garaietara etorriz, XIX. eta XX. mendeko Euskal Herriko eta Gipuzkoako datuak aztertuko ditugu. Hori, noski, epe motzeko aldaketak ikusiko ditugu, luzeak ez baitaude.

Aldaketa handiak somatzen al dira?

Klima aldatzen dela historikoki frogatuta dago, eta horren adibideak asko ditugu. Kontua da, aldaketa klimatikoa edo hondamendi klimatikoa baino, hondamendi ekonomikoa deitu beharko geniokeela. Izan ere, lurraldearen kudeaketa txarra da bereziki garrantzitsua, eta aipatu beharko litzatekeen. Urpean gertatzeko arriskua zuten leku askotan etxebizitzak eraiki dituzte, eta hori jakinda gai-

nera. Urrutira joz, Tsunamiaren adibideak ditugu, etxebizitza ugari egin dituzte urteetan zehar kostaren zonaldeetan, eta hori jakinda gainera, eta horren kontura asko eta asko aberastuko ziren, eta gero guztiok ezagutzen ditugu ondorioak. Gertuagoko adibideak ere jar genitzake, noski. Zarautz edo Donostia izan daitezke adibideak, uholdeak eta euriteak izan baitira, baina baita Tolosan ere, 1953n urteko urrian. Hemen ere urpeangertzeko arriskua zegoen lekuan etxebizitzak zeuden, eta ondorioak izan zituzten euriteengatik, baina kontua da zergatik zeuden etxebizitza horiek hor.

Beraz, aldaketa klimatikoa baino kontuan hartu beharrekoa guk urteetan zehar lurraldearekin egin duguna al da?

Bai. Izan ere, leku horietan ez balira etxebizitzak egingo ez legoke arrisku hori.

Dena den, aldaketa klimatikoarena hor dago, ezta?

Bai. Baina, aldaketa naturalarekin, hau da, lehen ere ematen ziren hauekin, nahiko ahulak baginen, pentsa, guk sortzen ditugunekin hau zenbat areagotu daitekeen.

Guk sortzen dugun hau nola aldatu beharko litzateke?

Esaterako, zergatik ez dainbertizten energia berriztagarrietan? Orain, garai batean ez bezala, petroleoa asko garestitu da, eta biokontua suposatzen du, eta biokontua bustiblearengatik aldatuko dute ziurrenik. Honek, ordea, eragin ekonomikoa izango du gudan, lehenagien garestitzea ekarriko baitu.

Zer egin daiteke egoera honen aurrean?

Ingurugiroari kaltegarri zaion edozein ekintzari kontra egitea da erakutsi behar dugun jarrera, eta

beharrezkoa den ala ez galdetu behar dugu. Esaterako, lehen aipatu bezala, etxebizitzekin egiten ari denari. Milaka eta milaka etxebizitza egiten dituzte, baina benetako beharra al dago? Honek eragin handia egiten dio ingurugiroari, baina kontua da irabaziak oso handiak izaten direla, eta horrek konpentsatzen duela. Gai honekin, beste lurraldeetan egiten duten bezala, etxebizitza hutsak hartu beharko litzateke kontuan, eta esaterako alokairuan jarri. Etxebizitzen adibide bera litzateke errepideena: geroz eta ibilgailu gehiago daudela errepideetan eta lehenengo irtenbide bezala, errepide edo autobide berriak egitea ikusten dute, eta zaharren paraleloan jartzen dute, eta horrek, noski, sekulako ondorioak sortzen ditu, baina irabaziak ere bai, eta azkenean hori da kontuan hartzen dutena. Prozesu industrial bakoitzak frogatu beharko luke ez duela inongo eraginik ingurugiroan. Gobernuak hartu behar dituzte neurriak hau alda dadin.

Nola ikusten duzu Gipuzkoa 50 urte barru?

Gaur egun dugun krisia iraganorra dela diote, baina nik ez dut uste horrela denik, sistema erabat modifikatu baita. Lehen lehengaiak eta eskulana prezio baxuan zeuden, horixe behar baitu sistema kapitalistak, batzuen mesederako, jendea mendeen izatea. Baina, mendeen daudenak ongi bizi nahi dute, eta hori orduan ezin da bete. Adibide bat jartzearen, txinatarrek ekoizpenean sartu dira, kompetentzia, eta horrek eragina izango du, agian oraindik ez, baina hemendik urte batzuetara bai, eta orduan, gure produktuek besteekin konpetitu beharko dute.

L Laburrak

Helduentzako oporrak kanpaina abian da

AISIA » Imbersok antolatuta, abian da Helduentzako oporrak 2008/2009 kanpaina. Izena eman nahi dutenek gutxienez 65 urte izan behar dituzte, Pentsioen Sistema Publikoko erretiro pentsioa jaso behar dute, Pentsioen Sistema Publikoko alarguntasun pentsioa jaso eta 55 urte beteta izan behar dituzte edota, Pentsioen Sistema Publikoko beste pentsiodunak eta aurre-erretiratu izan behar dute, bi kasuetan 60 urte beteta izanda. Eskaerak ekainaren 13a baino lehen bidali behar dira Imbersora. Hauek Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako bulegoetan eskura daitezke astelehenetik ostiralera, osteguna izan ezik, 10:00etatik 13:00etara.

Orixekoek 3. saria Klik eta Klik Lehiaketan

HEZKUNTZA » Orixek ikastetxeko ikasleek 3. saria irabazi dute Bostgarren Klik eta Klik Lehiaketan. Hain zuzen ere, Tolosako Udaleko Euskera eta Hezkuntza saileko zinegotziak, Ainhoa Etxeberriak eman zien saria. Argazki kamara bat jaso zuten ikasleek.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 - 943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosaldea bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

» BIHARKO EGITARAUAK

Alkiza

- 20:00. Meza nagusia.
- 21:00. Afaria Ostatu jabetxean.

Amasa

- 10:30. Meza nagusia.
- 12:00. Idi dema Rafa Illarretaren (Intziñarte) eta Frantxilla Berriren (Orereta) artean. Gero bertsolariak.
- 14:00. Bazkaria Arantzabi jabetxean, Zabale eta Larrañaga trikitilariak eta Ion Lopategi eta Angel Larrañaga bertsolariak.
- 20:30. Afaria Iturrigo jabetxean, barrikotearak eta bazkariko trikitilari eta bertsolariak.

Anoeta

- 20:00. Koldo Jauregiren hitzaldia karobizuloei buruz, udal areto nagusian.

Asteasu

- 11:15. Meza.
- 13:00. Erakustaldia egingo dute probalekuan. Olarra Goikoako zaldia 1.200 kiloko harriarekin eta Joxe Barriolaren idi pare 1.200 kiloko harria 200 kiloko gain-kargarekin.
- 14:00. Bazkaria Sarasola sagardotegian, Amets Arzallus eta Sus-trai Colina bertsolariak.

Berastegi

- 12:00. Pilota partidak.
- 13:15. Prozesioa udaletxetik San Martin elizara, txistulariek lagunduta.
- 13:30. Meza, dantzarien parte-hartzearekin.
- 14:15. Bazkaria eta ondoren herriko gaztekoen bertso saioa Gaztainondon.

Irura

- 17:30. Argazki lehiaketako sari-banaketa.
- 18:00. Loatzoko Musika Eskolako ikasleek emanaldia egingo dute plazan. Ondoren, merienda eskainiko da.
- 19:00. Isidro Deunaren omenezko meza. Bukatutakoan, Irurako dantzariak saioa egingo dute plazan.
- 21:00. Herriko baserriarrentzat afaria antolatuta Zaharren Biltokian.

Zizurkil

- 11:00. Meza.
- 12:00. Aizkolari eta harri-jasotzaileak.
- 14:00. Bazkaria Plaza Etxeberrijabetxean trikitilari eta bertsolariak.

San Isidro Egunarekin bat, ekitaldi ugari eskualdean

Jaia » Afari-bazkariak, herri kirolak, mezak, kultur asteko ekitaldiak, hitzaldiak... antolatuta dituzte biharko hainbat herritan.

ERREDAKZIOA

San Isidro Eguna, baserriarren eguna, ospatuko dute biharkoan eskualdeko hainbat herritan. Horrela, Alkiza, Amasa, Anoeta, Asteasu, Berastegi, Irura eta Zizurkil antolatuta dituzte hainbat ekitaldi. Bi gauza ez dira faltako leku guztietan. Alde batetik, meza, eta bes-

tetik, mahai inguruan biltzeko aitzakia, bazkariak edo afariak izango direlako.

Herri kirolak

Egun honetako beste ezaugarria herri kirolak dira. Amasan, Asteasun eta Zizurkil ikusi ahaliko dira. Asteasun ohikoa bihurtzen ari den protagonista izango da bertan, Olarreaga-Goiko baserriko zaldia. Idi pare iza izango du aurrez aurre eta 20 minutuko tandak egingo dituzte. Amasan ere idi probak izango dituzte eta Zizurkil harri-jasotzaileak eta aizkolariak ariko dira erakustaldia ematen.

San Isidro egunak Alkizan eta Iruran bat egiten dute bertako kultur asteeekin. Alkizan egunak hasiera emango dio asteari eta Iruran, besteak beste, argazki lehiaketaren sari banaketa eta Loatzoko musika eskolako ikasleek emanaldia izango dira.

Berastegin, mezaren aurretik prozesioa egingo dute eta bertsolariak saioa herriko gazteek eskainiko dute bazkal ondoren. Anoetan ez da mezarik ez afaririk izango, baina bai karobie buruzko hitzaldi interesgarria, Koldo Jauregi larrauldar adituak emango duena.



Elizpean egin zituzten bote eta toka jokoak. I. GARCIA

Kultur Astearen jubenatua izan dira protagonista

Irura » Toka, bote eta mahai-jokoak egin dituzte; gaurkorako Usobiagaren ikus-entzunezkoa eta Irintzi taldearen obra.

I. GARCIA

Irurako Kultur Astearen baitan, atzokoan jubenatua izan zuten protagonismoa. Beraiei zuzendutako jokoak egin zituzten. Hala, tokan eta botearen aritu ziren elizpean. Ondoren, mahai jokoak egin zituzten Zaharren Biltokian.

Atzoko beste ekitaldia kafe-teritulia izan zen, A.M. Urangarekin,

Nola lagundu haurrei ohitura osasungarriak har ditzaten gaieren inguruan.

Antzerkia eta mendia

Gaurkorako bi ekitaldi daude aurreikusita. 17:30ean, haurrei zuzendutako antzerkia ikus daiteke Trinketean. Irintzi taldeak, berriaz, *Zuk Zuk jaunaren alfabeto berria* obra emango du.

Bestalde, 19:00etan, Patxi Usobiaga munduko txapelidunak ikus-entzunezkoa erakutsiko du Ikastolan. *Patxi mundu bertikalean* izena du eta eskaladaren inguruko irudi ederrak ikusteko aukera izango da.

Abesti ezagunekin osatutako emanaldia

I. GARCIA

Fabel abeslari donostiarrikuskizun berezia emango du bihar Villabonako Gurea aretoan, 19:00etan. Kutzak diruz lagundutako emanaldia izango da eta horregatik sarrera doakoa izango da. Fabel berak adierazi duenez, «nire bizitzan esanahi handia izan duten abestiak kantatzen ditut».

Hain zuzen, emanaldiak *La musica del siglo: un viaje personal* izena du eta hainbat abesti ezagun kantatzen ditu artistak. Kantuari laguntzeko, abestiarekin zerkusua duten arropak jantzen ditu aurkezpenak egiten dituen biartean. Kantu batetik besterako tarte horretan pianojole baten laguntza izaten du. Adin guztiei zuzendutako emanaldia da eta Fabelek diegoenez, «entzulegoarekin egiten duten elkarriketa moduko bat da emanaldia. Nik asko gozatzen dut eta espero dut eta ikus-entzulegoak ere ondo pasatzea da helburua».



Fabel abeslariak emango du ikuskizuna. HITZA

Laburrak

Haur bertsolarien emanaldia Atxulondon

ZIZURKIL » *Maiatza Saltsan* egitarauaren baitan, gaur, 18:00etan, Zizurkilgo haur bertsolariak emanaldia egingo dute Atxulondo kultur etxean. Bestalde, igandean izango den Zizurkilgo X. Biatloian izena emateko eguna etzi amaitzen da. Hiru modalitate daude eta zazpi urtetik aurrera parte har daiteke. Izen-ematea doan da eta Aurrera plazako udal bulegoetan edo 943 69 24 95 telefonoan egin daiteke.

Ate irekien jardunaldia egingo dute gaur Fraisoron

ZIZURKIL » Itsasmendikoaren Fraisoroko eskolan ate irekien jardunaldia egingo dute gaur, datorren ikasturterako eskainiko dituzten formazio ikastaroen berri emateko. Hain zuzen ere, 17:00etatik aurrera egin ahaliko dute bisita interesatuek.

Zinema euskaraz **berria** rekin

Maiatzaren 24an
filma DVD formatuan

Maiatzaren 27an
filma DVD formatuan

+ 6,95€

OHARRA: biltegikoak bukatu arteko eskaintza

Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa etzi izango da

Alegia » Lehenengo paperekoa egingo dute eta 16:00etan Kultur Etxean bat-batekoan 7 ariko dira, tartean, eskualdekoak.

NEREA URBIZU

Etzi, Alegian Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa egingo dute. 15:00etan emango diote hasiera Aralar institutuan idatzizko lanekin, bertso paperak osatuko dituzte inguratzen direnek, eta ordu bat izango dute emandako gaiarekin bertsoak osatzeko. Mikel Mendizabal bertsolari eta antolatzaileak adierazi bezala, «froga hau bukatu bezain laster, 16:00etan, beraz, bat-bateko saioa izango da Kultur Etxeko areto nagusian. Hara bidaliko ditugu denak, idatzizkoa bukatu eta segituan».

Txapelketa bi zatitan dago banatuta, idatzizkoa eta kantatu beharrekoak. Azken hau bi mailatan banatu dute: 14 urte artekoak taldeka (hiru edo lau bertsolariko taldeak) eta gero 15etik 18 urtera bitartekoak: hauek banaka aritu beharko dira.

Bertso lehiaketaren parte-hartzaileen artean alegiarrak ere badira, noski. Alegiako 14 urtetik beherakoen taldea Iñaki Artolak, Jurgi



Alegiako bertsolariak entsegu batean. Duela hilabete inguru hasi ziren etziko lehiaketa bereziki prestatzen. HITZA

Goñik eta Aratz Irazustabarrenak osatzen dute. Aurten handiekin kantatu behar duena Imanol Irazustabarrena izango da.

Eskualdeko bertsolari gehiago

Eskualdeko beste batzuk ere kantatzen dute Alegian: Asteasuko Haritz Mujika txikiek ariko da Maddi eta Ane Labaka ahizpa larsartearrekin. Bi neska hauek Asteasuko eskolan ibiltzen dira.

Handien mailan, hauek dira talde guztiak: Goierri-Asteasu taldea, Gema Urteagak, Joanes Etxaidek, Haritz Mujikak eta Maddi Laba-

kak osatuta; Alegiako taldea Iñaki Artola, Jurgi Goñi eta Aratz Irazustabarrenarekin, eta bukatzeko, Zumarraga-Urretxuko taldea Joseba Salegi, Jon Mendizabal, Jon Etxezarreta eta Iker Arratibelekin.

Hau da, Kultur Etxean ariko diren bertsolariak Villabonako Oihana Iguaran, Lasarteko Ane Labaka, Alegiako Imanol Irazustabarrena, Beasaingo Ainhoa Mujika, Gabiriko Endika Igarzabal, Idiazabalgo Joseba Agirrezabala eta Urretxuko Amaia Iturriotz izango dira. Gaiak jartzetz Saroi Jauregi zaldibiarra arduratuko da.

Paperezko lehiaketan 4 maila

Paperezko lehiaketan lau maila bereiztu dituzte: lehen hezkuntzako bigarren zikloa eta hirugarren zikloa, eta DBHko lehen zikloa eta bigarren zikloa eta batxilergoak batera. Aralar institutuan handiak eta bi maila txikienak Kultur Etxean ariko dira.

Alegiako bertso eskolako irakas-

lea Iker Iriarte alegiarra da, eta berak esan bezala, «aurten da Alegiatik txikien mailan taldea osatu den lehen aldia. Orain arte, beste herri batzuekin atera izan dira batzuk, hemen taldea osatzen ez zelako». Irailetik ekainera bitarte bertsolaritza irakasten dio talde bati, eta aurten animatu direnak lau izan dira. «Urteko ekintzarik potentee-na hau izango da guretzat, Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa».

Hiru talde eta 7 gaztetxo ariko dira guztira. Dirudienek, Alegiako bertso eskolako gainerakoak ere prestatzen ari dira taularatuko diren bertsolariak animatzeko: pankartak eta guzti egin dituzte.

Triarterte gazte hauen garapena ikusi du urtean zehar, eta «esan dezakedana da, hasi zirenetik gaur arte hobekuntza nabaritu dela, al daketa handia. Etziko ekitaldia duela hilabete-edo hasi ginen bereziki prestatzen». Atzo izan zen alegiarrak azken entsegu.

Finala Iruran

Etziko kanporaketa hirugarrena da lautik. Azkena Oñatin izango da eta sailkatzen direnak Iruran jokatu den finalera joango dira hilaren 30ean. Alegian bezala, Irurara herritarrak nahiz bertsozaleak azaltzea espero dute bertsolari gaztetxoek, animoak eta lasaitasuna beharko baitituzte.

Laburrak

I. Frontenis Txapelketan aritzeko epea bihar arte

BALIARRAIN » Bihar da Baliarraingo I. Frontenis Txapelketan izena emateko azken eguna. Banakakoa izango da 5 euroren truke, eta izen-ematea Aralar Kirolak (Tolosa), Urrutia Kirolak (Beasain) eta Olaso Tabernan (Legorreta) egin daiteke. Hilaren 31n hasiko litzateke eta hiru asteburuz jokatu da, finala ekainaren 15ean izanik. Partida guztiak Baliarraingo pilotalekuan jokatu dituzte. Sariak ere izango dira.

Loari buruzko hitzaldia izango da astelehenean

IKAZTEGIETA » Astelehenean loari buruzko hitzaldi bat izango da ikaztegietakoliburuetegian 17:00etan, Kutxak antolatuta. *Ongi lo egiten ahalegin du hobeto bizitzeko* deitu diote. Helburuak, loak beharizan fisiologiko gisa gure bizimodurako zer dakarren jakitea eta loezina borrokatzeko behar diren tresnen berri jakitea dira. Zer eragin duten gaueko ohiturek, loezin-motak, tratamenduak, aholkuak... Sarrera doakoa da.

Txina Alegiaratzen ari dira aste honetan eskolan

ALEGIA » Alegiako San Juan eskolak Txinako herrialdeari egin diote lekua aste honetan. Urte osoan zehar hainbat herrialde lantzen dituzte, hasiera batean, bertan beste lurralde batzuetatik etorritako ikasleek lurraldeak lantzen dituzte. Txinakoak egon ez arren, aipatu zuten eskolako irakasleek, aurten Txina landuko zutela Olinpiar Jokoa aitazakiatzat hartuta. Udan izango dira eta lurralde honi buruz ikasleek gehiago jakingo dute.



Kubeta berriak erantzun ona

ANOETA » Apirilean Anoetako Udalak kiroldagiko sarreraren etxeko olio eta hondakin arriskutsuak jasotzeko kubeta bat jarri zuen. Zerbitzuak oso erantzun ona izan du, eta dagoeneko gauza asko jaso ditu: bideo zintak, olio poteak, bonbillak, CDak, aparailu elektriko txikiak... Udalak animatu nahi ditu herritarrak zerbitzu hau erabiltzen jarraitzea. Hondakinak eramateko ordutegia: asteleheneetik ostiralera 09:00etatik 12:30era eta 15:00etatik 21:30era, eta larunbatetan 09:00etatik 13:00etara. HITZA

hazi
nahi duten
personentzat

Gizarte parte-hartzeari buruzko prestakuntza-ikastaroak

Oarsoaldea

Maiatza, Asteartea 20, asteazkena 21 eta osteguna 22.
19.00etatik 21.00etara Erreterriako Reina Aretoan.

Urola Erdia

Maiatza, Asteartea 20, asteazkena 21 eta osteguna 22.
19.00etatik 21.00etara Azeitiko Sindikatu Zaharreko Aretoan.

Izena emateko:

Deitu

943 25 10 05

Idatzi

partehartu@baketik.org

Sartu

www.baketik.org

Laguntza:

Antolatzaile:

Bultzatzaile:



Belauntzako zinegotzi ohi baten aurkako espetxe zigorra eskatu du Fiskaltzak

Politika » Belauntzako Sustraiak plataformako zinegotzi ohiak eta akusatua ofizialki ez zaiola ezer iritsi azaldu du.

ASIER IMAZ

Gipuzkoako Fiskaltzak espetxe zigorra eskatu du Belauntzako Sustraiak plataformako kide eta zinegotzi ohi batentzat. Gertaerak 2004. urtean kokatu ditu Gipuzkoako Fiskaltzak. Ustez, «sustraiak plataformako kide bat UEMAK, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak, egin zuen bilerara batera joan zen Belauntzaren ordezkari bezala 2004. urtearen

urriaren 16ean Zestoan (Gipuzkoa), nahiz eta erantzunkizun hori ez izan».

Urte eta erdiko espetxe zigorra

Gipuzkoako Fiskaltzak urte eta erdiko espetxe zigorra eskatu du Sustraiak plataformako kidearentzat, «funtzio publikoen usurpazioagatik».

Fiskaltzak delitua ikusi du ustez UEMaren bilerara joan eta Belauntzako ordezkari bezala agertu izanagatik: «2003. urteko hauteskundeetan Sustraiak plataformak hartu zuen alkatetza Belauntzan. Baina ondoren EAJ-EA eta Erroizpe plataformak bat egin zuten, ezker abertzalearen platafor-

ma gobernutik kentzeko. Sustraiak taldeko kideak bazekien 2004. urteko otsailaren 13ko bilkuran Belauntzako Udalak UEMArako bi ordezkari izendatu zituela, eta berak ez zuela erantzunkizun hori». Ministerio Publikoaren esanetan, akusatua 2004ko urriaren 16ean UEMaren bilerara joan zen, eta bertan ustez «bere herriaren ordezkari funtzioa hartu eta bere izenean bozkatu zuen».

«Nik baino lehen dakizue»

Akusatuak bere aldetik ofizialki ez dakiela ezer aipatu du. «Niri ez zait inongo jakinarazpenik iritsi eta ofizialki ez dakit ezer. Ziur jakin arte ezin dut ezer esan, nik baino lehen jakin duzue».

Patxi Zeberio eta Koteto Ezkurra nor baino nor bihar Galarretan

Erremontea » Bi aurrelari handien lehia eta gero Altuna II.ak jokatu du jaialdiko hirugarren partida.

A. IMAZ

Hernaniko (Gipuzkoa) Galarreta pilotalekuan astero bezala erremontea jaialdia ospatuko da bihar 16:00etatik aurrera. Lau partida jokatu dituzte eta bertan egongo dira eskualdeko bi erremontista, Patxi Zeberio elduaindarrak eta Gariquitoz Altuna amezketarrak.

Zeberio II.a eta Ezkurra

Jaialdiko bigarren partidari bi aurrelari erabakiorrenak elkarren aurka ariko dira: Patxi Zeberio eta

Koteto Ezkurra. Hauei laguntzen, elduaindarrak Lizaso izango du atzean, Ezkurrak berriz Iriarte.

Apirilagorria izan zen Zeberio II.arentzat, Ezkurra garaitu ezinik ibili baitzen. Iragan larunbatean ere ezin izan zuen garaitu, nahiz eta oraingoan maila bikaina erakutsi Patxi Zeberio, 21 tantu eginez. Klasiko bat bilakatu den norgehiagoka 40 tantura jokatu du.

Altuna II.a San Miguelekin

Gariquitoz Altunak jaialdiko hirugarren partida jokatu du, San Miguel gaztea lagun duela. Aurrean Uterga-Etxeberria III.a bikotea izango dute.

Patxi Zeberioaren partida bezala, 40 tantura jokatu du. Jaialdiko lehen partida 35 era jokatu du eta azken 30era.



Badator V. Garagardo Festa

IBARRA » Garagardo Festaren V. edizioa maiatzaren 29an hasi eta ekainaren 1ean amaituko da. Herriko talde ezberdinek Ibarako plazan elkartu eta aurkezpen argazkia atara zuten, hainbat helburu eta desio iragartzeko. Horretaz gain, Garagardo Festaren helburuak zeintzuk ziren aipatu zituzten: «Herri giro handia jartzeko duen ohitura bilakatzen ari da Garagardo

Festa. Aurten bosgarren urtea izango du eta orain arteko erantzun berdina izatea nahi genuke. Horretarako lan handia egin behar da, ondorioz herritarren parte-hartzea beharrezkoa da, ez baita posible ez bada denon artean egiten. Aurreko urteetan belaualdia ezberdinetako 200 bat lagun bildu izan gara, horrek sortzen duen giro berezia oso polita izaten da». A. IMAZ

Laburrak

Asteburuko bertso afariko txartelak salgai

GAZTELU » Maiatzaren 17an bertso afaria egingo dute Gazteluko Muxarra Elkarteak 20:30ean. Bertan Hamaika Bertute taldeko partaide diren Mantxi eta Ander Lizarralde arituko dira kantuan. Saioa Galtezaundi eskura taldearen eta Gazteluko Udalaren artean antolatuko dute. Afariko txartelak 15 eurotan erosi ahal izango dira eta horretarako bi telefono zenbaki jarri dituzte: 943 67 58 97 eta 943 68 22 28.

Gurasoentzat hitzaldia etzi 16:15ean Kultur Gunean

LIZARTZA » Gizarte Zerbitzuak guraso eta seme-alaben arteko harremanak garatu eta lantzeko hitzaldia antolatu du etzi Lizartzako Kultur Gunean. Hitzaldian «arauak eta mugak» aztertuko dira eta 16:15ean hasiko da. Hitzaldiak dirauen bitartean, gerturatzen diren gurasoen hurrek begirale batekin egoteko aukera izango dute.

Osasunari buruz Txaraman eta Belauntzan hitzaldia

OSASUNA » Uli Mankomunitateak antolatu eta Kutxako ikasgelak sustatutako osasunari buruzko jardunaldia egongo da gaur 16:30ean Txaramako Osasun Kultur Gunean. *Maitasuna eta afektibitateak adinekoen artean izango da bertan landuko den gaia. Antolatuzaile eta sustatzaile berdinek Ongi Erosten izeneko hitzaldia prestatu dute Belauntzan bihar 17:00etan. Hitzaldi hauetara herritar guztiak gonbidatu dituzte.*

Anjel Arrospide urrezko aizkoralik gabe

LEABURU-TXARAMA » Anjel Arrospide aizkoralik agur esan dio 2008ko Urrezko Aizkolarien Txapelketari lesio baten ondorioz. Lehen jarraitzerik ez duenez izango leaburuarrak bere norgehiagokak galdutzat emango dituzte txapelketaren arduradunek. Ondorioz ez da finalerdietan eskualdeko aizkolaririk egongo.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

E Elkarrizketa

ANA USABIAGA › Txirrindularia

«Nire helburua mundialetan ikastea eta gozatzea da»

Txirrindularitza › Zazpi domina lortu ditu Ana Usabiagak Espainiako Txapelketan; orain, uztailean jokatu diren Mundialei begira dago.

ESTI EZEIZA

Espainiako Txapelketan sei urrezko domina eta zilarrezko bat irabazi ditu pista nahiz errepidean, Tolosa CFko Ana Usabiaga (Ordizia, 1990) txirrindulariak. Orain, uztailean, Hego Afrikan jokatuko den Pistako Munduko Txapelketa prestatzen hasi da. Bertan lehiatuko da Espainiako selekzioarekin, junior mailan.

Noiz sartu zinen txirrindularitza munduan?

Bederatzi urterekin hasi nintzen. Anai zaharrenak eman zuten izena txirrindularitza talde batean, eta nik, gutxiago ez izateagatik, berdina egin nuen. Bere lasterketa bat ikustera joan nintzen eta gustatu egin zitzaidan. Tolosa CFko taldea berriz, duela bi urte sortu zen, eta hasi zenetik hor nago.

Espainiakoan zazpi domina, zer sentitzen da hori irabazi eta gero?

Banekien ongi ibiliko nintzela, eta urre batzuk lortzea espero nuen, baina ez seirak. Neska gutxi korritzen dugunez, ezagutzen ditugu gure aurkariak, eta badakigu zeinen aurka joan beharra daukagun edo kontrolatu behar dugun. Horrek gauzak nolobait, erraztu egin ditu.

Zilarrezko horrek mina ematen al du?

Txapelketa amaitzean, askok esaten zidaten: «Ez zara kezkatuko!». Nik berriz, adarra jotzeko esaten nien, zilarrezko horrengatik kezak ez nintzela. Baina beno, nire helburua zen Mundialetarako txartela lortzea, eta hau eskuratzearekin gustura nengoen.

Espainiakoan, zeintzuk izan ziren aurkari gogorrenak?

Balear Uhartetakoak oso ongi dabilta orain, belodromo berri bat egin baitiete, eta asko entrenatzen dira. Bestetik, errepidean, Medite-rraneo aldekoak ongi dabilta.

Zer nahiago duzu, pista edo errepidea?

Orain gutxi arte pista ez zitzaidan batere gustatzen, aspertu egiten nintzen itzuliak ematen. Aldiz, Agustín Pagola zuzendariak esaten zidan pistaarako asko balio nuela. Baina azken aldira, lasterketa

batetik bestera, giroan sartuz joan naiz, eta gero eta gusturago nago. Aurten, lehendabiziko aldiz prestatu ditut seriozitatez txapelketak eta ongi irten da. Iaz, Europako Txapelketara joateko ia sailkatu nintzen eta hurrengo urtean joan beharra neukala erabaki nuen.

Erraza al da ikasketak eta txirrindularitza uztartzea?

Denbora aurkituz gero ez dago arazorik, antolatzea da sekretua. Hala ere, orain bai, denak batera etorri zaizkit eta dezente kostatu zait biak uztartzea. Dena den, egun arte ez dut arazorik izan eta gero ere ez dudala izango uste dut.

Zer ematen dizu txirrindularitzak?

Gauza asko. Baina, esaterako, lehen askoz ere pertsona itxiagoa nintzen, eta txirrindularitzari esker jende asko ezagutu dut. Bestetik, antolatzen ikasi dut, eta badaikit, zerbait lortzeko sakrifikatu egin behar dela. Baina, gauzak ateratzen direnean, ikusten duzu merrez izan duela.

Etorkizunera begira, gustatuko al litzazuke txirrindularitzatik bizitzia?

Nik beti esaten dut, profesionale-tara iritsi nahiko nukeela, baina gauzak ez daude errazak. Gero eta gorago iristearekin konformatzen naiz, eta egunen batean, errepidean Italiako Giroa korrituko banu, munduko neskarik zoriontsuena izango nintzateke.

Txirrindulari ona izateko zein ezaugarri izan behar dira?

Gainontzeko kirolean ez dakit, baina bizikletan behintzat, oso ga-

Profesionaletara iritsi nahi dut, baina gero eta gorago iristearekin konformatzen naiz

rrantzitsua da egunero entrena-tzea. Seriozotasun batekin ez baduzu hartzen ezinezkoa da iristea.

Oraindik ere, neska gutxi daude txirrindularitzan.

Euskadiko selekzioan, esaterako, jubenilen mailan, taldeka lehiatze-ko gutxiegi ginenez, kadete batzuk



ESTI EZEIZA

ere gurekin aritu dira. Jendea etortzen hasi da, baina pixkanaka. Gainera, errepideko txirrindularien artean daukagun arazo handi-entako bat joan-etorriak dira. Lasterketa asko urruti izaten ditugu, eta horrek gastu handia suposatzen du. Gainera, antolakuntza aldetik ere, gutxi garez, maila oso ezberdinak daude gure artean, eta hala ere, lasterketa bera korritu behar izaten dugu.

Nesketan, dopingaren mamuak mutiletan bezain besteko ohartzuna al du?

Nesketan ez da horrenbeste entzuten, gutxiago baikara. Mutiletan exijentzia gehiago daude, eta errazagoa da. Baina jendeak adarra jo izan dit.

Lasterketa batean gozaten al duzu?

Bai, asko. Pelotoiaren barruan nagoenean asko gozaten dut, eta oso

ongi pasatzen dut. Askok esaten didate, ikusten zaidala, bizikleta gainean nagoenean, gozatzu noala. Berdin zait ondoan daukadan gutzia, eta hori nabari da emaitzetan.

Zer dituzu nahiago, taldekako probak edo bakarkakoak?

Alde batetik bakarkakoak nahiago

Txirrindulari ona izateko oso garrantzitsua da eguneroko lana seriozitatez hartzea

ditut, zuk egindako lana ikusten eta goraputzen baita. Baina bestetik, taldekakoetan, giro onean egoten zara, eta bata besteari laguntzen dio.

Mundialetara begira, zein da zure helburua?

Maila handia dago hor, eta ez dau-

ka zerikusirik Espainiakoekin. Horrengatik, ez dut helburu finkorik. Hortik ikasi egin nahi dut, etorkizunera begira, berriro joaten baina, nola egin behar duan jakiteko. Gero Europakoak jokatuko ditugu, eta hor bai. Mundukoetan lortutako emaitzen arabera, helburu batzuk finkatuko ditut. Esaterako, lehendabiziko hamarretan sartzea.

Zein da zure duhain handiena?

Sprinta. Lehen, nik beti esaten nuen ez nintzela sprinterra, baina inguruko guztiak esaten zidaten baietz. Sprinter batek, abiadura ez ezik, azkarra ere izan behar du lasterketa batean. Non kokatu, eta zein jarraitu behar duen ikusi behar du, eta ni horrelako gauzetaz hartzen naiz. Ikusteko gaitasun berezi bat izaten dute sprinter direnek, eta nire kasuan ere esaten didate horrela dela.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Kultur asteak

■ **Irura.** 17:30ean Irrintzi produktzioen *Zuk jaunaren alfabeto berria* haur antzerkia; eta 19:00etan Patxi Usobiagaren *Patxi mundu bertikalean* ikus-entzunezkoa ikastolan.

Hitzaldiak

■ **Leaburu-Txarama.** *Maitasuna eta afektibitatea adinekoen artean* hitzaldia emango dute hirugarren adinekoentzat 17:30ean Txaramako osasun kultur gelan.

Deialdiak

■ **Alegia.** III. Bertso Paper Lehiaketa antolatu du Zazpi Astoren Gai- nean bertsozale taldeak. Lanak Kultur eta Kirol Etxean edo *zazpiastorengainean@gmail.com* helbidean entrega daitezke.

■ **Tolosa.** *Berriak 5 urte* ekitaldia Kultur Etxean 20:00etan: bideoa, hitzaldia, aurrera begirako erronkak eta mokadua.

■ **Zizurkil.** Zizurkilgo haur bertso- larien emanaldia Atxulondo kultur etxean 18:00etan.

Irteerak

■ **Ibarra.** Lizarrara irteera antolatu du Bizi nahi jubilatutako elkar- tearen 23rako. Izen-ematea, elkar- tean 30 eurotan (bazkide ez direnek, 32 euro).

■ **Zizurkil.** Elizpe jubilatutako elkar- tearen irteera antolatu du Senda Viva parkera (Argedas, Nafarroa) 22rako. Bazkaria, dantzaldia eta bingo ere izango da. Izen-ematea, elkar- tean 24 eurotan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 673649.
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esan- en eta iritzien erantzunkizunik.



Gelditour ekimenak «AHTri ez» esan dio

TOLOSALDEA • AHT Gelditu! Elkarlanak antolaturiko Gelditour ekimena eskualdera heldu zen atzo. Hain zuzen ere, eguerdi partean Tolosako Triangulon egin zuen gelditour kamioi ibiltariak (irudian ikus daiteke), proiektzioak eta panel informatiboak oinezkoentzat eskuragarri jarri zituztelarik. Arratsaldean, berriz, Zizurkilera joan zen Gelditour. Bertan

erakusketak, hitzaldia eta elkarretaratzea egin zituzten. AHT Gelditu! Elkarlanak Gelditour ekimena jarri zuen martxan Kortesen (Nafarroa), Donostian maiatzaren 31n amaitzeko. Helburua trenaren proiektuaren berri ematea da eta hiritarrak mobilizatzea. Eskualdetik igaro ondoren bere bidetara jarraituko dio kamioiak. ASIERIMAZ

A Agurrak



Urte askoan!

Zorionak amoni! Leire, Ainara, Mikel eta Iratin partetik. Besarkada bero bat Iñigoren partetik.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

berriak 5 urte

Zatoz
gurekin ospatzera!

Eskualdez eskualdeko ekitaldiak

- BERRIAK 5 urte. Bideoa
- Hitzaldia. Aurrera begirako erronkak
- Mokadua

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO
EKITALDIA

Maiatzak 14, asteazkena, 20:00etan
Tolosako Kurtur etxean

berria
luzatu bostekoa

